## Eutsi gogor

Altxatu haiz betiko orduan
leku berdinera joateko berriz.
Autobusean ez duk ohiturazko aurpegia
aurrera egitera hoa inoiz ez bezala
betikoen kontra inoiz ez bezala
betikoen kontra baina inoiz ez bezala
Buzo, kasko, musuzapiak aurpegian
sua ta kea Deustuko zubian
tuerkak gomazko piloten kontra
Eutsi gogor Eutsi gogor
Eutsi gogor Euskalduna
Lehen bokadiloa zergmaten poltsikoak
orain askoz ere astunago dituk
gasola behar duk! azkar hustu motor hori!
barril atzean gogor ari dira oraindik
Akaba zak, tapa botilak
KAGUENDIO! zelan pasa da hori,
akaba zak, gorde zak ongi.
Ez pentsa ezer, ordua duk eta
ez duk ezer behar, soilik suertea
Jo Joxe Mari, apuntatu ongi
Sua emaiok rekonbertizak
Sua emaiek rekonbertizak
Sua emaiek, sua emaiek, rekonbertizak

## Eder bati

Beraz eder, ez zara etorri deikunera
nahiz otoiz egin nik.
Hits ordea ez nago, zuretzako gehiago
ez dut maitasunik
iruditzen zitzaidan zeudela zure baietan
ase denak atzo.
Gaur gero neska gazte, eskua dut emazte
eutsiko zait zintzo.
Andere bihotz aizun,
damutuko ez zaizun. Ni otoiz, nork daki?
Bai orduan alferrik, ez dizuket eskerrik
eskua dut aski.
Andere begi urdin
zu joanik ere berdin
bai pozik naizela!
Nerau nerohen jabe
besteen beharrik gabe
Jainko bat bezala

## Zoriontsua?

Zoriontsua naiz, dena daukat
ordain dezaket nere pisua
jiradiska, dutxa, telefonoa.
Drogarako ez bada, zertarako atera.
Eta hilabetero paroa kobratzen dut
baina ia beti ia hila nago
zergatik ez didate sobrea ohera ekartzen.
Ze ondo nagoen, horrela nahi nuke hil.
Bainan ze arraio
behi esnerik ez da
orain soilik dator tetrabriketan
plasti txuleta bat ekar zan
hobe da jatea pentsatzea baino
hator hona maitia sofan egingo dinagu
gehiago pentsatzen badut burua lehertuko zait.
Plastiko inguruan, kaka zaharra
almazen haundietako poltsa hutsak
zure barne jantziak, nylonezkoak
zakarontzira laister bota beharko naiz eta
utz nezan ezin dudala, ez al dun ikusten?
ez naiz konzentratzen ez dakit non nagoen.
Argi dago, ezabazioa
zibilizazioaren abantailak
Kaka ematen digute ttantta zenbagailuz
ta allegro moderatoan kejatzen gara soilik
ipurdia, igurtzita, mermeladaz
zer itxoiten ote dugu? azken kolpea ala?
Kartzelan telebista, koloretan
paralitikoak orain aerodinamikoak gara
"de uste" tratatu nau, Psoeren poliziak eta
gomazko legatza, sobra zait oraindik txakurrentzat
ezabatu gaitzte granjetan bezala
nondik irtetzen da? hemen iraultza ezina da
soilik errebelioa geratzen da.

## Aurkariari zorionak

Agurrak ugari!
Musuak ugari!
Besarkadak ugari!
Gezurrak ugari!
Ez dizkizut azaldu nahi
mobidaren pausoak
egunero zure etxean ikusten ahal baita
ginebrako konbentzioaren edo aita Santuren
edozein erreportai / telebisatua
irudiko luke.
Ohitura zaharrak, edozein jauntxo lapurrak
agertuko du muturra
zure telebistan aurkariak agurtzen.
Gezurrak ugari.....
Bistakoa da, dena lapurtzen digutela
adiskidetasun keinu sinpleak ere
profanatu dituztela usurpatzaile modernoek
nork bere onean ibiliko luke hain joera zikinik
Agurrak ugari!
Musuak ugari!
Besarkadak ugari!
Zoriontasuna izan dedila
Gezurrak ugari!

Tsunamin grabaketa egin da (Donostian)
Grabaketaren teknikoak:
Oscar "Brujo" Clavel
Josean Lopez
Nahasle: Oscar "Brujo" Clavel

Produkzio musicala:
Hertzainak eta Marino Goñi

Azalaren diseñua:
Anton Muñoz & Babinton Pip.

Mila esker
Bingen Mendizabal
Marino, Boni, Drogas
eta Potxotorenari
bere laguntasunagatik!

## HAU DENA ALDATU NAHI NUKE

Amatiño telebistan agertzen denean
apaizazkin kalean gurutzatzen naizenean
eta langabetua kalean diru eske dagonean
lagunak armatera daramatenean.
Aspertzen naizenean
gaur ez diostazunean
bakartua nagonean
ihes egiten dugunean
detenzion horrialdea eginen irakurtzerakoan
kontrolean geldi arazten nautenean
kartzelan gosez hiltzen direnean
lagunen begiek beldurra agertzen dutenean
hau dena aldatu nahi nuke
alferrik bizi ez naizela uste
bainan soilik amorrua senti dezatek
zuen kontra botatzeko.
Eta ezin dut
indar gabe eta, bakartua nago, edo, beharbada
drogatuegia egongo naiz bainan
errepikatzen dut, eta berriz diot, berriz diot.
Hau dena aldatu nahi nuke

## MAITE ALDAKETAREN ALDE II

Lau urte pasatu dira maite.
Zelan aldatu zara!
Orain ileak puntan daramatzazu,
zu nork ezagutuko?
Besarkatzen nauzu, titiak
ene sahietseari josten.
Gaur ni izan naiz gorritu dena
leloa naiz sentitzen
zigarro bat eskatzerakoan
nere lema erotu didazu
gorritu naiz, leloa sentitzen naiz
horrela zure odoan.
Zure aurpegiak ez du ematen
lotsa itxurarik, ta begirada
zuzentzen diozu zuzen jokuari.
Eskua sartuz: bigun, epela, ireki duzu
lasai, maisuki, laztan eginez atera didazu
eta bukatzeko itxi asperen batez
zure titiak ene sahietsean nere lema erotu didazu
gaur ni izan naiz gorritu dena
txunditurik utzi nauzu.
Nere karteran ez dago ezer, dena desargetu da
karneta berriz ez duzu eraman,
hain gaizki nago argazkian?
Agur maitia, aldatu zara, ikasi duzu,
zelako besarkada!
Akojonatuta utzi nauzu, zeharo harrituta
topa egiten dut orain zugatik Ducados batekin
zure txuloren 4 latasen kapotean txin, txin.
Agur maitia, aldatu zara, agur maite, zelako besarkada
zure aldaketaren alde, maite,

## HARD TIMES (SASOI LATZAK)

Every day things are getting worse
times so hard, la la la.. oh oh
egunero dena okerrago
sasoi latzak, la la la la, oh lord
merkatura eraman zintudan
eta denak parre ene txakurrari
ez dago kerik surik gabe, badakizu
altxa behar da burua

## SOÑUAREN PPRODUKZIO BAT DA:

C/ CORTES DE NAVARRA
Nº 7 - 4º DCHA.
IRUÑA

## MAITE ALDAKETAREN ALDE I

Orain oroitzen naiz zelan ezagutu ginen
kale erdian gurutzatzen,
zure ipurdi larrosak arpegiurdindu ninduen ta
nere norabidea aldatu zenidan txikita.
Taberna hartaraino jarraitu zintudan
nola aparta begirada zure atzekaldetik
zigarro bat eskatu nizun, bestea banuen.
Gorritu ta gero, tira, eman zenidan
sekulakoa edan ondoren zure atarira iritsi ginen
nere lainotik, zure doblea
imaginatu zintudan, amets eroa,
ah! zein ederki pasatuko ginuken!
Zuek biok eta hirurak.
Dena illuragarria ematen zuen
Txatxi bederatzi atari triste hura.
Zure ipurdi larrosak arpegiurdindu ninduen ta
nere norabidea aldatu zenidan txikita
eta ausartu nintzen
irri egiten zenuen,
musu bat.
Bapatean argitu zinen
eta gustoen geudenean, moztu gintuzun
ez nuen ulertzen zer pasatzen zen,
ez al zitzaizun gustatzen?
Egun batetan aldatuko zara
guztik seguru nengoen

## HIL EZAZU AITA

Etzanda nengoela nere gelan,
besteak diskutitzen sukaldean.
Peta bat egin nuen loegiteko
ta nere ondamenaz ahaztutzeko
zeozerk esan zidan: adi ametsari
eta kontuz ibili aitarekin!
Aita hiltzailea izan zen,
aitak ezin zuen gainditu
aitak egin behar izan zuen, zintzilik zegoen,
egin behar zuen.
Kopetaraino zegoen emazte seme alabez eta lanez
Kotxe berri baterako diru beharrez.
Gehiegi edan zuen batetan,
armariotik atera zuen eskopeta
tiro bat bota emazteari, tiro bat bota anaiari
beste bi tiro arrebentzat eta beste bat katuarentzat.
Eta pareko tabernan erre
eta edaten guztik itsu ari nintzen jartzen
Tabernatik atera eta bi argi doaz nere etxera,
bata urdina, polizia da ta,
bestea gorria, anbulantzia.
Ulertzen dut iristerakoan
bolbora usaina, odola parketan
argi urdinak aita daroa eta gorriak bost hilotzak
Bapatean despertadoreak jotzen du
ta ohartzen naiz dena amets bat izan dela
soilik amets bat, ez da ezer gertatu
zergatik orduan ezin dut lasaitu?
Sukaldean jarraitzen dira ohiuak,
bata moskortia besteak galduak
eta orduan bost tiro entzuten dira
eta gero soilik ixiltasuna.
Pasiloan urrats batzuk irristatzen
aitak bere lana amaitu nahiez ote?
bala bat baino gehio ba du oraindik
zer egin behar dut nik, ospa egitea hemendik
bolbora usaina, odola parketan
hil ezazu aita, hil ezazu bertan
ez ba duzu hiltzen, hila zaude
ez ba duzu hiltzen, hila zaude
ez ba duzu hiltzen, hilko zaitu berak.